

Agustin Sarasola Z.N.N jardunaldiak

**Mikelazulo
Kultur Elkartea**



Esan gabe doa. Xume, lagunkoia, bakarrik bere paper zatiarekin, hitzaldietan galdetzen nekaezina, etsipenaren aurkako harresia, mundu berria oldozten, Herriko Enparantzatik Zintzilik irratia-aren bidez haizean bere ahotsa, lortua, rokanboleskoa, herriko sufrimenduari erne, presoak bihotzean, Ama Lurrarekin maitemindua... Esan gabe doa.

Maiatzaren 26-27an, Agustin gogoan, beraren bi ezaugarri (hitza eta komunibideak/herrigintza) oinarritzat harturik, Jardunaldi xumea burutu da.

Hitza. Maiatzaren 26ean Herriko Enparantzan mikrofono bat jarrita zegoen. Irekia. Ez zegoen gairik. Edonork zuen gonbidapena bere barneko hitz batzuk esateko. Hitzari dagokion leku nagusian, espaloian, kalean, plazan. Denon aurrean. Denok dugu, Agustinek erakusten zuen bezala, geure esperientzia propioa, geure barrunbe guk geuk sortua. Ez gara inoren bozgoragailuak. Norberaren hitzarekin sortzen da plazan herriaren hitza. Nor bere hitza osatzeko ausardia behar da eta batzarrean azaltzeko ausardia. Agusen hitz grabatuak berriro entzunez, saiotxo bat egin zen.

Komunikabideak eta herrigintza. Maiatzaren 27an, herriko lau komunikabideen esperientzia-aren inguruan (Oarsoaldeko Hitza, Zintzilik Irratia, Herri Bizia eta Gaztañoko Guifenet) gosari lasaian bildu ginen. Arratsaldean Zintzilik Irratian komunikazioari buruzko tailerra burutu zen. Hainbat gai arakatu genuen. Zer komunikazio mota? Nori zuzendua? Nork eginga? Berrien eta eritzien jasole hutsak edota berrien eta iritzien sortzaileak ere? Espektakuluaren begiraleak edo ekimen sortzaileak? Zer argitan eskaini gertakariak zein herrigintza osatzeko? Pluraltasuna, denona eta herrigintza minimoki kalifikatua? Komunikabide tresna askeak, botere ekonomiko edo politikoaren menpe gabeak? Komunikazioa alda, Kamiok dioden bezala, herrigintzaren bihotza? Notiziak ematea aski al da, edo notizia askoren atzean dagoen egitasmoaren berri komunikatzea? Ez al du telebistak, oso modu errazean, botoia sakatuz, herrigintza edo *desherrigintza* egiten? Aske eta herritarrek izan nahi duten komunikabideen arteko elkarlanarentzat biderik ireki beharko litzateke? Zer iritzi daude herrian esku tartean dugun egitasmo komunikatiboei buruz? Galdera pilo bat, mahai gainean utziak. Jarraipena beharko ote dute?